



EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

Adituek diotenez, hizkuntza bat menperatzeko ez da aski ikastea; hizkuntza horretara ohitu beharra dago, hitz egin, entzun eta egun osoan zehar buruan izan. Hizkuntza ikasteko prozesua asko hobetzen da hizkuntza hori erabilera arruntekoa den lurraldean eginez gero. Gainera, uda izan ohi da hori egiteko garairik aproposena. Hori gogoan, euskara landu nahi duenak ere badu aukera bat baino gehiago. Euskaltegien eta barnetegien ohiko eskaintzaz gainera, udako programa berezia da aspaldian indarrean: "Egonaldiak familia euskaldunetan" izenekoa.

Programa hau HABE erakundeak abiarazi zuen 1986an nahiz eta joan deneko lau urtean Bilboko Ulibarri eta Donostiako Urrats euskaltegiak izan egitasmoaren kudeatzaile nagusi. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren helburu da euskara landu edota hobetu zein euskalkiren bat ikasi nahi duten ikasleei laguntza ematea. Horren arabera, ikasleak hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldia egiteko aukera du familia euskaldun baten etxean edo baserrian, udako hilabeteetan, hau da, uztailetik irailera, nahiz eta urteren batean edo bestean urrian eta azaroan ere egin den. Euskara erabiltzearekin batera, euskal kultura eta euskararen eremu geografikoko herrien bizimodua bertatik bertara ezagutzeko parada du ikasleak programa honen bitartez.

Bete beharreko baldintzak

Programan parte hartzen duten familia euskaldunei dagokienez, zenbait baldintza bete behar dute. Batetik, biztanleriaren % 70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzuneetako batean bizi behar dute, dela Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan, edota Ipar Euskal Herrian. Bestetik, egonaldia eskaintzen den hilabetean gutxienez hiru kidek bizi behar dute etxean edota baserrian. Beste baldintza bat dugu kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea.

Era berean, ikasleei ere zenbait baldintza betetzea eskatzen zaie. Adinari dagokionez, adibidez, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako, 18tik 45 urtera bitarteko adina izatea. Euskara-mailari gagozkiola, berriz, ikasleak hizkuntza-trebetasun dezenteren jabe izan behar du, izan ere, egitasmoaren helburua ez da euskara ikastea, erabili eta sakontzea baizik. Hortaz, behar-beharrezkoa da euskara jakin, ulertu eta hitz egitea.

Programan parte hartzen duten familiak egonaldi bakoitzeko ikasle bat baino ezin du hartu. Ikaslea familiako bizitzan txertatuko da eta, nahi izanez gero, etxeko zein baserriko lanetan parte hartuko du. Familiak hilabeteko egonaldi bakoitzeko 600 euro jasoko ditu, horietatik ikasleak 300 euro ordainduko dituelarik eta beste horrenbeste HABEK.

Tipologia

Oro har, ikasleak hartzen dituzten familia gehienak Gipuzkoakoak dira (% 60 baino gehiagotan) eta Nafarroakoak ondoren (% 20 inguru). Ikasleei dagokienez, berriz, Bizkaia eta Arabakoak dira gehienak. Inoiz edo behin, Euskal Herritik kanpo bizi diren ikasleek ere hartu dute parte programa honetan.

Ikasleak ezaugarrien arabera hiru multzotan bana daizteke: Lehenengoa, ikasleen % 50 inguru; 19-23 urte bitartekoak; gehienak unibertsitatean ari diren edo karrera bukatu berri duten Bilbo aldeko emakumezkoak. Bigarrena, berriz, ikasleen % 30 inguru; 25-40 urte bitartekoak; euskara-agiriren baten jabe direnak baina ez erabiltzearen ondorioz euskaraz jarduteko zailtasuna dutenak eta lanean euskara behar dutenak. Hirugarrena, azkenik, % 10 inguru, euskalkiren bat ikasi nahi dutenak; gehienak euskararekin zerikusia duen lanbideetan ari direnak.

Ebaluaketa

Egonaldiak aztertzeo asmotan urte askoan egin diren inkestek adierazi dutenez, ikasle gehienek (% 90etik gorakoak) familien eta herrien egokitasun maila handia azpimarratu ohi dute. Bestalde, ikasleek zein familiek oso iritzi baikorra dute egonaldiari buruz eta ikasleek beraiek, aurrerapauso handia egin dutela diote beti edo gehienetan.

2006ko datuak

"Egonaldiak Familia Euskaldunetan 2006" programaren baitan, Euskal Herriko 22 herritako 29 familiak parte hartuko dute aurtengo ekitaldian, guztira 64 egonaldi eskainiko direlarik. Oraindik goiz bada ere, aurtengo ekitaldian, 35-40 ikasle parte hartuko dute programan.



AKIER DIAZ, HEMERETZI URTEKO GAZTE BILBOTARRA BIDEGOINGO ARRETXE BASERRIAN

“Etorri nintzen lehenengo urtean ez nuen ezer ulertzen”

Familiak eta ikasleak dira Egonaldiak programaren helburu eta protagonista. Hainbat herritako etxe eta baserrietan gauzatzen da asmoa eta horietarik batean izan da Berripapera. Bidegoianera (Gipuzkoa) jo dugu, Goiazko Arretxe baserrira. Maria Jesus Agirretxe etxeoandrea eta Akier Diaz ikasle gaztea izan ditugu solaskide.

Etxeko sukaldean dira gure zain Maria Jesus eta Akier. Amona Maria ere ez dute aparte. Soroan da aitona argia, Jose Mari. Auzoan eta lanean dira gainerakoak: Maria Jesusen senarra eta hiru seme-alabak. Egonaldiaren berri jakin gura ditugunak kafe egin berriaren usainean kontatu dizkigute, atseginez.

Berripapera: Maria Jesus, familiarik ez balego ez legoke Egonaldiak programarik. Nola jakin zenuten haren berri? Zerk bultzatu zintuzten euskara-ikasleari babes ematera?

Maria Jesus Agirretxe: Aspaldi genekien. Alegia, inguruan ikusten genituen euskara ikastera etorritakoak. Programa hori zegoela jakin genuen eta izena eman genuen. Batik bat, umeak txikiak zirelako. Hiru ume ditugu, hemeretzi, hamazazpi eta hamalau urtekoak baina, programa honetan hasi ginenean gure zaharrenak hamahiru urte zituen. Guri iruditzen zitzaigun umeak ume zirenean hartu behar genuela ikaslea. Izan ere, harremana ezberdina da orduan. Esaterako, Akier hazia da orain, baina niri iruditzen zait heldua etorriko balitz ezberdina izango litzatekeela egoera. Horretan nago.

B.: Eta, zuk, Akier, zein bide egin du bilbotar gazteak Goiazko Arretxe-raino?

Akier Diaz: Hemeretzi urte ditut eta hamasei urte nituela etorri nintzen lehenengo aldiz.

B.: Honaxe etorri ere.

A.D.: Bai. Etxean ez dugu euskaraz hitz egiten. Gurasoek ez dakite. Tira, aitak zer edo zer. Arreba bat ere badut eta harekin batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz hitz egiten dut. Hona etortzea, berriz, aitaren kontua izan zen. Berak aipatu zidan baserrira etortzeko zera hau. Aproba egiteko,



alegia, euskaraz hitz egiteko. Eta aproba egin nuen. Handik urte batera, neuk nahi nuen etorri! “Zer, Akier, joan nahi al duzu Goiaztera?”. “Bai horixe!”, nik.

B.: Euskaraz ikasia al zara?

A.D.: Bai, Artxandape ikastolan ikasi nuen, Bilbon, baina han ez da euskaraz hitz egiten. Ez lehen, ikastolan ari nintzenean, ez orain. No-rekin hitz egin behar dut?

Lagunartean, batekin beste inorekin ez dut hitz egiten euskaraz. Denak biltzen garenean, erdaraz, nahiz eta denok jakin euskaraz. Baina ohitura!

B.: Zer ari zara ikasten orain?

A.D.: Lanbide Heziketako Mekanizatua modulua egin dut aurten, Durangon, euskaraz. Datoren urtean, berriz, aldatzeko asmoa daukat: ostalaritza egingo dut Leioan, euskaraz. Ikasten, behintzat, euskaraz ari naiz beti...

B.: Lehenengo urte hartan, zer moduz moldatu zinen? Baserrikoei ulertzeko zailtasunik?

A.D.: Zailtasunik? Hasieran ez nien ezer ulertzen. Ezer ez, ordea. Orain ez daukat problemarik, nahiz eta batzuetan hitzen



Egonaldiak eskaintzen direnako herriak ageri dira mapan

Akierren pena

“Lehenengo, gurasoekin etorri nintzen baserrira ikusi eta familia ezagutzea. Etorri eta Josebarekin joan nintzen –baserrikoa, nire adineko mutila–, ikuilua ikustera. Gero, zaldia erakutsi zidan. Eta, handik, frontoira joan ginen, jolasera. Ondo pasatuko nuela iruditu zitzaidan. Eta halaxe izan zen. Euskaraz hitz egin beste obligaziorik ez nuen. Huraxe lehenengo obligazioa. Eta hemen erraza da, euskara besterik ez dago eta hemen. Bigarre-na, etxeko lanetan lagundu. Belarretan eta patata ateratzen lagundu dut. Aitonak aitzurrarekin patata atera eta nik bildu. Ez zait etxeko lanetan laguntzea inporta eta, are gehiago, gustatzen zait. Lehenengo urte hartan, hilabete pasa eta pena eman zidan alde egiteak”.

bat edo beste ez ulertu. Hala ere, lehenengo urte harekin konparatuz gero, orain primeran! Gazteei errazago ulertzen diet. Esaterako, oraindik ere, batzuetan ez diot aitaitari ulertzen. Ezin. Oso azkar hitz egiten duela iruditzen zait. Amonari, adibidez, hobeto ulertzen diot.

B.: Goiatz buelta honetan hikaz hitz egitea da ohitura.

A.D.: Ulertzen dut, baina hitz egin ez.

M.J. A.: Hemen erabat hitz egiten da hika. Sei urteko mutikoak hikaz ariko dira elkarren artean. Neskak, berriz, gutxiago. Dena dela, gure zaharrenak zuka hitz egiten dio Akierrri, ez hika. Konfiantza kontua ere bada, ohitura, eta ohitura bat hartuz gero zaila da aldatzen...

B.: Zertan ematen duzu eguna, Akier?

A.D.: Jaiki, gosaldu, egunkaria irakurri, Goiatz edo Bidaniara joan, kirola... Horrela nabil aurten, Joseba (etxeko seme zaharrena, Akierrren adinkidea), lanean hasi da eta. Iaz ezberdina zen, eguna elkarrekin pasatzen genuen eta, batera eta bestera. Orain, zazpietan etortzen da eta hona edo hara joaten gara afaltzeko ordua iritsi arte. Afaldu, telebista eta ohera.

B.: Baserriko lanik ba al da Arretxen, Maria Jesus?

M.J. A.: Ganadua eta belarra ditugu. Eta belarra denean, denok batera joateko plana egiten dugu, gehienbat larunbatetan.

B.: Hizketan egiten dituen akatsak zuzentzeko ohiturarik ba al duzue?

M.J.A.: Ez erabat. Aurrekoan, esaterako, amonak berak zuzendu zion. Askarian zer jango ote zuen amonak galdetu eta Akierrrek jamaio! erantzun zion. Eta amonak: "Urdaiazpikoa esaten da, Akier!". Batzuetan, zer

edo zer ez duela behar bezala esan iruditzen zait, baina ez dut jakiten zer, edo nola zuzendu. Zer edo zerk belarrira min egin didala bai, konturatzun naiz. Bestalde, ikastolan ikasitakoak dira eta jakingo dutela uste duzu. Guk, esaterako, erdara hutsean ikasi genuen...

B.: Akier, euskaraz hitz egitea da egonaldien helburu. Horretan ari zara, bistan denez. Zer gertatuko da Bilbora zoazenean?

A.D.: Han? Erdaraz hitz egingo dudala! Han ez da euskaraz hitz egiten, ez kalean ez inon. Erdaraz bizi zara. Ahaztu egiten zaizu euskara. Adibidez, pilotan jokatzen nuen lehen, dena erdaraz zen gure mundua. Bizkaiko herri txikiaren batera joaten ginenean, Elorriora, Lemoara... orduantxe entzuten zen jendea euskaraz. Baina Muskizera joan, Santurtzira, Portugaletera...

Maria Jesusen "ikasleak"

"Gazteak hobeto, beharbada. Kanpoan pasatzen dute denbora, batarekin eta bestearekin jolasean, eta euskaraz hitz egiten dute denbora guztian. Helduagoekin diferente da. Izan genuen bat, adibidez, etxean denbora gehiago pasatzen zuena. Asko irakurtzen zuen eta galdera asko egiten zituen. Galdetu, erantzuna idatzi... Nik uste haretzek ikasi duela gehien. Beste bat, etorri zen, goizean jaikitzen zen, lagunak zituen Errezilen, joaten zen hara, etortzen zen, eta gu hasten ginen galdezka: zer moduz hau, zer moduz bestea... Hark ez zuen hainbeste aurreratu. Akierrren kasuan, berriz, gure seme-alaben adin batekoa da eta horrek asko laguntzen dio. Logelan ere gure zaharrenarekin dago, Akierrrek ere harekin nahi du eta. Errazago du euskaraz hitz egitea".

B.: Hortaz, zein da zure euskararen etorkizuna? Noiz arte joko duzu Egonaldiak programara?

A.D.: Ez dakit. Uste dut datorren udan lanean hasi beharko dudala. Ez dut baserriera etortzeko aukerarik izango. Lagun batekin bakarrik hitz egiten dut euskaraz, eta harekin jarraituko dut. Eta arrebarekin. Horiek euskaraz. Beste inorekin ez. Hortik aparte, liburuak, egunkariak eta telebista ditut. Bestalde, EGA azterketa egin nuen orain dela hiru edo lau urte. Ahozkoa gainditu nuen eta idatzizkoa ez. Hizkuntza Eskolan ere ari naiz. Lau maila egin ditut. Azkenekoa eta EGA geratzen zaizkit.

B.: Maria Jesus, batere alderik egiten al du ikasleak, hemen egiten duen hilabeteko egonaldian?

M.J.A.: Bai, dudarik gabe. Askoz erraztasun handiago izaten du hilabetea pasa eta gero. Eta urte batetik bestera ere, etorri berritan makalago hitz egiten du, gehiago kostatzen zaio, baina berehalaxe jartzen da. Jari egin behar, hemen ez da eta euskara besterik!

A.D.: Hori da, hemen ez dago besterik! Nik benetan gomendatuko nuke Egonaldiak programa. Etorri eta hitz egin. Zailena zer den galdetzen didatenean, zera erantzuten dut nik, etortzea dela zailena. Merezi du.



LAUAXETAREN OMENEZKO ESKULTURA GASTEIZEN

Datorren urtean hirurogeita hamar urte beteko dira poeta hil zutenetik

Joan zen ekainaren 22an Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak omenaldia egin zioten Estepan Urkiaga *Lauaxeta* poetari. Omenaldia aitzakia, Lauaxetaren eskultura, haren soin-enborra, jarri zuten Lauaxeta kalean bertan, Eusko Jaurlaritzaren egoitza aurrean. Eskulturak bi metro ditu eta Joan Septimiu Jugrestan (1979) artista errumaniarrak egin du Eibarko Alfa Arte enpresan. Brontzeko soin-enborra hare-harrizko oinarri baten gainean jarrita dago. Oinarrian Lauaxetaren hitz ezagunak irakur daitezke: "Dana emon behar jako maite dan Askatasunari".

2005, Lauaxetaren urtea

Estepan Urkiaga *Lauaxeta* (Laukiz, 1905- Vitoria-Gasteiz, 1937) jaio zeneko mendeurrena ospatu zen iaz eta hainbat izan ziren poetaren omenezko ekitaldiak. Mungiako udalak, adibidez, Lauaxetaren oroimenez atondu eta kaleratu zuen 2005eko egutegia. Iaz bertan, hil zuten egunarekin bat eginez, ekainaren 25ean, omenaldi hunkigarria egin zitzaion Gasteizko Santa Isabel hilerrian. Aste hartan bertan "Lauaxeta: herri antzerki(j)a" izeneko opera erakutsi zuten mungiarrek hala Mungian bertan



nola Bilbon. Hori ez ezik, Antton Valverdek Estepan Urkiagaren poemak musikatu eta jaialdi berezi bat baino gehiago egin zuen uda aurretik.

Ildo berean, Euskal Herriko Unibertsitateak ere ikastaro berezia ondu zuen poetaren lanari buruz Uda Ikastaroetan barne, eta Gabriel Arestiren omenez Ean egin ziren poesia-egunetan ere Lauaxeta izan zuten aztergai eta hizpide.

Udazkenean, bestalde, euskal idazleek ere bere alea ekarri zuten Laukizko poetaren mendeurren ospakizunetara eta omenezko antologia argitaratu zuten Durangoko Azoka atarian. Lan hartan, hamabost idazleek Lauaxetaren poemak gainean idatzitako glosak bildu zituzten. Eta idazleek egin zuten bezala egin zuten kantariak ere; alegia, hamaika abeslarik Lauaxetaren poema bana musikatu zuten, diskoa grabatu eta editatzeko.

Urtea amaitu baino lehen, berriz, poetaren izena daraman saria eratu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Saria urtero-urtero banatuko da. Lehenengo edizioari dagokionez, Labayru Ikastegiko zuzendari Ander Manterolak jaso zuen saria.

2007an, 70 urte Lauaxeta hil zutela

Datorren urtean, hirurogeita hamar urte beteko dira Lauaxeta hil zutenetik. Hori gogoan harturik, Eusko Jaurlaritzak Lauaxeta zenari omenaldia eskaini nahi izan dio eta bere esker ona azaldu, euskaltzale, idazle, kazetari eta poeta honi. Horren kariatara jaso dio Eusko Jaurlaritzak monumentua poeta fusilatuari hil zuten herrian bertan, Gasteizen.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: berripapera@ej-gv.es